

(Abajo en castellano)

AMURRIOKO UDAL KOMITEAK ALKATEAK LANGILEEN ORDEZKARIEKIN NEGOZIATZEA ESKATZEN DU, ETA KOMITEKIDEAK NAHITA EZ KALTETZEA BERAIEN JARDUN SINDIKALAGATIK.

Gaur, 2024ko urtarrilaren 25ean Amurrioko Udalak Osoko Bilkuran Lanpostuen Zerrendako (LPZ) lanpostuetan hainbat aldaketa onartuko ditu Udal Gobernu Taldearen aldeko bozkekin. LPZn azken urteotan egin bezala, alkateak proposatutako alde bakarreko aldaketak onartuko ditu Gobernu Taldeak. Aldaketa horiek Komitearekin ezer ere negoziatu gabe, eta Komite osoaren kontrako iritziarekin egin dira eta egiten jarraitzen dute.

AMURRIOKO EGUNGO ALKATEAK EZ DU EZER NEGOZIATZEN KOMITEAREKIN, ETA BERE NAHIA INPOSATZEN DU.

Komiteak urteak daramatza lanpostuen balorazioa eskatuz (Urduñako Udalak egin du, Laudiokoak, Aiarakoak, Artziniegakoa ari da...), Amurrio delako duela 35 urtetik lanpostuen balorazioa egin ez duen bakarra. Lanpostu guztiak, aukera berdintasunean baloratzea eskatzen da.

Administrari laguntzaileek administrari lanak egin arren, administrari laguntzaileen kategorian jarraitzen dute; duela 5 hilabete alkateak aukeratutako 2 teknikari koordinatzaile izendatu zituen eurei soldata igotzeko koordinatzaileak behar zirela argudiatuta, eta behin horiei soldata igota, 3 hilabete pasa ez direnean, koordinatzaile izatetik teknikari izatera pasatu ditu, eta gainerako koordinatzaile figura guztiak ezabatu (Ongizate Arlokoa izan ezik). Azken barne sustapena, indarrean dagoen araudia errespetatu gabe egin du; lanpoltsen araudia ere kasu batzuetan ez du bete; lanpostuen zereginen aldaketei buruz aurkeztutako errekurtsu bati ez dio erantzun...

Alkateak, berak hautatuko lanpostu gutxi batzuk bakarrik, eta alde bakarrez, baloratzen ditu (horiek izan dira LPZn egindako azken aldaketak). Negoziazio mahai bat irekitzeko eskaera bilera ezberdinetan egin arren, baita idatziz ere, ez dugu erantzunik jaso. Kontuan izan behar da 2018an 2023ko ekainerako beteta egon behar zen akordio bat adostu zuela Udalak Komitearekin, eta 6 hilabete beranduago bete zuela bere hitza, hainbat langile akordioa bere osotasunean bete gabe jubilatuta eta kotizazioetan zein pentsiotan kalteak jasota. Horri gehitu behar zaio hitzarmenean onartuta dugun jubilazioengatik primak ezabatu dizkigutela eta Aldundi ezberdinetan nolabaiteko konpentsazio sistemak ezarrita egon (Arabian eta Bizkaian, eta alderdi politiko berdina daude gobernatzen), eta guk horiek gure Udalean aplikatzea eskatu arren, uko egin diotela. Bizitza oso bat lanean eman ostean gure hainbat lankide esku hutsik joan zaizkigu eta joango zaizkigu.

Hori da langileen gaineko eta langileen lan baldintzei eragiten dien erabakiak hartzeko jokabidea alkate eta gobernu talde honentzat. Komitea bilerara deitu, alkatearen alde bakarreko proposamen diskriminatzaileak proposatu (gutxi batzuei saria, eta beste guztiei ezer ez) eta bazterkeria horren aurrean Komite osoaren ezezkoa jaso ostean, alkatearen erabakia inposatu. Bilera hori akta baten jasotzea da negoziazorako duen betebeharra betetzea alkate eta Gobernu honentzat. Hori, aktan jasotzen dena bere gustokoa bada, ez bada bere gustokoa akta sinatu gabe geratzen da (2023ko akta bat sinatu gabe dago arrazoi horregatik).

Komiteak uste du koordinazio politikoaz gain (zalantzan jartzen ez duena), koordinazio tekniko ezinbestekoa dela gure Udalean, eta alkatetzak koordinatzaileen figurak ezabatzeko hartu berri duen erabakia akatsa dela. Udalak hainbat arlo transbertsal ditu, elkarlana eta sinergiak sortzea eskatzen duten hainbat plan eta programazio. Bada, koordinazio tekniko hori egitea debekatu

ostean, egoerak okerrera egin duela uste du Komiteak. Makroarlo batzuetan hilabeteak pasa dira inolako koordinazio teknikorik gabe. Erabaki hauek, koordinatzaile horiekin eta komitearekin ezer kontatu eta adostu gabe inposatu dira, noski.

ALKATEAK KOMITEKIDEAK NAHITA KALTETZEN DITU, ETA GOBERNU TALDEAK ONARTU

Horrekin nahikoa ez, eta komitekide biri bere lanpostuen funtzioak aldatu dizkie. Bati emailaz jakinarazi zioten ordura arte bere lanpostuan betetzen zituen zeregin teknikoetako batzuk ez zituela aurrerantzean bete beharko.

Beste bati, bi Lan Eskaintza Publikoren ostean (LEP) Zerbitzu Soziokulturalen Kudeatzaile postua eskuratu (Euskara, Hezkuntza, Elkarbizitza eta Osasuna arloak kudeatu ditu, jerarkikoki 11 funtzionario zituen bere ardurapean eta udal aurrekontuaren 1,5 miloi euro kudeatu ditu, aurrekontuen %10) eta 12 urtez lanpostu hori bete ostean, Zerbitzu Soziokulturalen Koordinatzaile izatera pasatu eta zeregin horietan guztira ia 19 urtez jardun eta gero, berari ezer esan eta jakinarazi gabe (komitekidea delako soilik ezagutzen du alkatearen proposamen hori), Euskara Teknikari soil izatera pasatu du Udalak (bere kargupean inor izan gabe eta 300.000€ kudeatzera).

Hori guztia funtzionario horren iritziaren kontra, LEP hori ateratzeko arlo ezberdinetan egindako formazio, master eta ikastaroak (Hezkuntzako CAP, Kultura kudeaketako master ikastaroa, Berdintasuneko 100 orduko ikastaroa, 4HE, hizkuntza normalizaziorako masterra..) zein arlo guzti horietako gaitegiak ikasi behar izana kontuan izan gabe. Urte horietan guztietan ez da inolako kezarik izan bere lanaren gainean. Edozein kasu, Alkateak argudiatzen du langile horri soldata ez diola jaitsiko.

Hala ere, 35 urteren ostean, litekeena da Amurrioko Udalak azkenean, bere gogoz kontra, lanpostuen balorazio bat egin behar izatea, eta LEP baten bidez lanpostua eskuratu duen lankide horrek, ia 19 urteko lan jardunaren ostean, ez du aukera berdintasunean zilegitasunez eskuratu zuen lanpostua behar bezala baloratzeko aukerarik izango. Komiteak argi du langileen lan baldintzak eta duintasuna, ez direla soilik soldatarekin neurtzen.

Kontuan izan behar da LPZko aldaketa zehatz hau Gobernu Taldeak LPZtik Euskara Teknikari baten lanpostua amortizatu ostean sortutako presio mediatikoaren ostean datorrela. Alkateak Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseiluak egindako eskaeraren aurrean, aspalditik begiz jota zuen ordezkari sindikalaren koordinatzaile lanpostua teknikari soil izendatzeko degradazio aukera hau aprobetxatu du.

Bi komitekide hauekiko alkatearen jarrera oldarkor hau duela 4 urteko kontua da. Bi delegatu hauek Amurrioko Udalak lanpoltsa baten kudeaketan, bertako partaide guztiak Udalak berdin tratatu ez zituela salatzeke asmoa agertu ziotenean. Geroztik, alkateak bere langileak diren bi pertsona hauekiko erabateko mespretxua adierazi du (koordinatzailearekiko duen jarrera ezaguna da langile gehien artean), bai plano pertsonalean eta bai laborean. Eta orain, LPZn lanpostu baten degradazioarekin borobilduko du bere jarrera. Hori guztia, langile eta komitekidea den ordezkari sindikal batek LEP baten lortutako bere lanpostua mantentzeko eskubidearen gainetik.

Kontuan izan behar da ordezkari sindikalen zeregina (lanpoltsen kudeaketa gardena eta inpartziala bermatzea kasu), zeregin hori legearen barruan gauzatzen den bitartean, legeak babestuta dagoela, eta ezin dela zigortu. Are gehiago, delegatu horrek Udalaren bitartekari ezberdinen bidez alkateari igorri zion proposamen bati ezezkoa eman dio alkateak, zigor hori are ageriago utziz. Alkateak Zerbitzu Soziokulturalen koordinatzailea Euskara Teknikari izendatu nahi

zuen, eta komitekide horrek, egoerari irtenbide bat eman asmoz, proposatu zion bere lanpostuari "Euskara Teknikaria eta Zerbitzu Soziokulturalen koordinatzaile" izena jartzeko, legeagintaldi honetan euskara teknikari lanak soilik esleituz, alkatea horrekin tematuta zegoelako. Horrela, balizko lanpostuen balorazio baten aurrean, LEP bidez ateratako plaza hori bere osotasunean baloratzea bermatuko litzateke. Alegia, alkateak nahi zuen helburua bermatzen zuen proposamen horrek, langilearen funtzionario karrera kaltetu gabe. Bada, horri ezezkoa eman dio. Zein da horretarako benetako arrazoia?

Bere burua babesteko gainera, koordinatzaile izaera zuten lanpostu guztiak (salbu bat), teknikari soil izatera pasa ditu. Horrela komitekidea zigortzeko maniobra disimulatu nahian. Baina, komitekidea da LEP baten bidez plaza bat eskuratu eta 4 arlo kudeatzeko arduratik (Euskara, Hezkuntza, Elkarbizita eta Osasuna) arlo bakar bat kudeatzera murrizten duen bakarra. Gainerako koordinatzaileek euren kudeaketa arlo guztiak mantendu dituzte, edo baten bat gehitu.

Komitea ideologia ezberdineko sindikatu ezberdinek osatzen dugu. Eta kasu honetan berdin dio zein den komitekidearen sindikatuaren sigla. Langileok gure ordezkariak babestu behar ditugu, bestela nork defendatuko ditu langileon eskubideak?. Gaur sindikatu bati tokatu zaio, eta bihar beste bat izan daiteke. Komiteak alkatearen jarduna publikoki salatu duen bakoitzean, alkateak beti adierazi du politikoki bere aurka egiteko asmoa dugula, oposizioak erabiltzen gaituela eta komitekideok gure langileak manipulatzeko ditugula. Oso akusazio larriak dira horiek. Gu ez gara alderdien lokatz politikoetan sartuko, baina ez dugu onartuko gure izena eta jarduna zikintzea, ezta ordezkari sindikalak izateagatik gure lan eskubideak zapaltzea ere.

Amurrion, 2024ko urtarrilaren 26an

AMURRIKO UDAL KOMITEA



EL COMITÉ DEL AYUNTAMIENTO DE AMURRIO, PIDE AL ALCALDE QUE NEGOCIE CON LOS Y LAS REPRESENTANTES DE LOS Y LAS TRABAJADORAS MUNICIPALES Y NO PERJUDIQUE DELIBERADAMENTE A SUS MIEMBROS POR SU ACCIÓN SINDICAL.

Hoy, 25 de enero de 2024, el Ayuntamiento de Amurrio aprobará en Pleno, con los votos a favor del Equipo de Gobierno municipal, una serie de modificaciones en las plazas de la Relación de Puestos de Trabajo (RPT). Como viene haciendo en los últimos años en la RPT, el Equipo de Gobierno aprobará las modificaciones unilateralmente propuestas por el alcalde. Estas modificaciones se han hecho y siguen realizándose sin negociar nada con el Comité y con la oposición unánime del mismo.

EL ACTUAL ALCALDE DE AMURRIO NO NEGOCIA NADA CON EL COMITÉ E IMPONE SUS DECISIONES

El Comité del Ayuntamiento de Amurrio lleva años solicitando la valoración de los puestos de trabajo porque Amurrio es el único municipio del entorno que no ha realizado la valoración de puestos de trabajo desde hace 35 años (ya lo han hecho: Urduña, Laudio, Aiara, y ahora la está haciendo Artziniega...). Se pide que se valoren todos los puestos, en igualdad de condiciones. Y es que, los y las auxiliares administrativas, a pesar de desempeñar funciones de administrativas, siguen en la categoría de auxiliares; hace 5 meses el alcalde nombró únicamente 2 técnicos y técnicas como coordinadores y coordinadoras, personas elegidas por el alcalde argumentando para dicha subida salarial, la necesidad de la figura de coordinadoras. Pues bien, una vez aprobadas esas subidas salariales, y no habiendo transcurrido 3 meses, los ha vuelto a renombrar como personal técnico (tal y como estaban inicialmente), eliminando todas las demás figuras de coordinadoras (excepto la del Área de Acción Social).

Así mismo, ha realizado la última promoción interna sin respetar la normativa vigente, ha incumplido en algunos casos la normativa de bolsas de trabajo, tampoco ha respondido a un recurso presentado sobre cambios en las funciones de los puestos de trabajo... Es el alcalde quien valora, de forma unilateral, sólo unas pocas plazas que elige discrecionalmente (éstas han sido las últimas modificaciones introducidas en la RPT). A pesar de que el Comité haya solicitado la apertura de una mesa de negociación en diferentes reuniones, incluso por escrito, no hemos recibido respuesta alguna.

Hay que tener en consideración que en 2018 el Ayuntamiento de Amurrio consensuó con el Comité un acuerdo que debía cumplirse para junio de 2023. Para cumplir con la palabra dada, la demora superó los 6 meses, perjudicando a varios y varias trabajadoras jubiladas en sus cotizaciones y pensiones, al no cumplirse el acuerdo en su totalidad cuando estaban en activo. A ello, hay que añadir que nos han eliminado las primas por prejubilaciones que tenemos reconocidas en el convenio, y que en diferentes Diputaciones se han puesto en marcha otros sistemas de compensación con garantías legales (como es el caso de Araba y Bizkaia, donde gobiernan los mismos partidos políticos que en el Ayuntamiento de Amurrio). Aunque el Comité haya solicitado su aplicación, se han negado. Después de toda una vida trabajando en el Ayuntamiento, nuestros y nuestras compañeras se nos han ido con las manos vacías y parece que así va a seguir siendo.

Esta es la forma de actuar y tomar decisiones en relación a cuestiones que afectan al personal del Ayuntamiento por parte de este alcalde y el Equipo de Gobierno. Convocar al Comité,

proponer propuestas unilaterales y discrecionales del alcalde (se premia a muy pocas personas que selecciona él, y no hay nada para el resto), imponer la decisión del alcalde ante la negativa unánime de todo el Comité ante el trato discriminatorio, y firmar el acta de esa reunión para justificar lo que él entiende por cumplimiento de la obligación de negociación. Eso sí, si lo que consta en el acta no es de su agrado, se queda sin firmar (como ocurre con un acta de 2023 que no está firmada por este motivo).

El Comité considera que, además de la coordinación política que no se pone en cuestión, la coordinación técnica es imprescindible en nuestro Ayuntamiento, y que la reciente decisión de Alcaldía de eliminar las figuras de coordinadores y coordinadoras es un error. Y es que, el Ayuntamiento tiene varias áreas transversales, diversos planes y programaciones que requieren la colaboración y la generación de sinergias entre diferentes áreas municipales. Pues bien, el Comité considera que, tras el impedimento de llevar a cabo estas coordinaciones técnicas, la situación ha empeorado. En algunas macro áreas, han transcurrido meses sin que se lleve a cabo ningún tipo de reunión de coordinación técnica. Estas decisiones se han impuesto, naturalmente, sin contar ni acordar nada con esos y esas coordinadoras, ni con el Comité.

EL ALCALDE ADOPTA MEDIDAS QUE PERJUDICAN DELIBERADAMENTE A MIEMBROS DEL COMITÉ, Y EL EQUIPO DE GOBIERNO LAS APRUEBA

Pues si con esto no fuera suficiente, el alcalde ha modificado las funciones a dos miembros del Comité en sus puestos de trabajo. A una persona le comunicaron por email que debía de dejar de realizar algunas de las tareas técnicas que venía haciendo hasta entonces en su puesto de trabajo.

A la otra, tras haber opositado en dos Ofertas Públicas de Empleo (OPE), y obtenido el puesto de Gestor de Servicios Socioculturales (en el que ha gestionado directamente las áreas de Euskera, Educación, Convivencia y Salud, y ha tenido la responsabilidad de 11 funcionarios y funcionarias, y gestionado 1,5 millones de euros del presupuesto municipal, el 10% de los presupuestos) y tras 12 años ocupando dicha plaza, pasó a ser Coordinador de Servicios Socioculturales. En total ha sido durante casi 19 años responsable técnico de ese departamento, sin tener ningún tipo de apercibimiento por el desempeño de sus funciones, y el alcalde ha convertido su plaza en la de un mero técnico que gestiona una única área, con un presupuesto de 300.000€ y sin personal a su cargo. La persona en cuestión tiene conocimiento de esa propuesta del alcalde en calidad de representante sindical, ya que el alcalde no ha contado ni informado nada personalmente a dicha persona. Esta decisión unilateral es totalmente contraria a la de la persona funcionaria afectada, que ve como no se tiene en cuenta todo el esfuerzo realizado en las 2 OPEs para formarse en varios cursos, másteres y títulos relacionados con las diferentes áreas que conforman los Servicios Socioculturales (CAP en Educación, Máster en Gestión Cultural, Curso de 100 horas de Igualdad, PL4, máster en normalización lingüística...), así como los temarios diversos de todas esas áreas que tuvo que estudiar.

En cualquier caso, el alcalde argumenta que a esta persona no se le perjudica porque no se le va a bajar el salario. Sin embargo, tras 35 años, es probable que el Ayuntamiento de Amurrio tenga que hacer finalmente, parece que, en contra de la voluntad del personal político del Ayuntamiento, una valoración de los puestos de trabajo. Es evidente que esta persona que ha

accedido a la plaza a través de dos OPEs, y tras casi 19 años de trabajo, no tendrá la oportunidad de valorar el puesto al que accedió legítimamente y en igualdad de condiciones frente al resto. El Comité tiene claro que las condiciones laborales y la dignidad de los y las trabajadoras no se miden ni se limitan sólo con el salario.

Hay que tener en cuenta que esta modificación puntual de la RPT viene tras la presión mediática provocada por la decisión del Equipo de Gobierno de amortizar el puesto de técnico de euskera de la RPT. Ante la exigencia de Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseilua de que el Ayuntamiento contara con o una técnica de euskera, el alcalde ha aprovechado esta situación para degradar el puesto de Coordinador que ocupa la persona delegado sindical a un mero técnico, a quien le tenía ganas desde hace mucho tiempo.

Esta actitud de desprecio del alcalde hacia estas dos personas (tanto en el plano personal como en el laboral), que son sus trabajadores y trabajadoras y que pertenecen al Comité, es una actitud que perdura ya 4 años, y su actitud hacia la persona coordinadora es conocida entre la mayoría de los y las trabajadoras. Estas personas delegadas, le manifestaron al alcalde en el año 2020 su total disconformidad en la gestión de una bolsa de trabajo, y su intención de denunciar esa situación, por entender que el Ayuntamiento de Amurrio no trataba por igual a todas las personas integrantes de la misma. Pues bien, además de seguir con el mismo trato personal, el alcalde ahora completará su actuación en el ámbito laboral, degradando su puesto en la RPT. Todo ello, por encima del derecho a mantener su puesto obtenido a través de dos procesos de OPE, y siendo una persona representante sindical y miembro del Comité.

Hay que tener en consideración que, las actuaciones de los y las representantes sindicales, siempre que actúen dentro de la legalidad (y así entendemos la labor de garantizar una gestión transparente e imparcial de las bolsas de trabajo), está amparada por la ley, y que no pueden ser sancionadas.

Es más, el alcalde ha rechazado una propuesta que esta persona delegada le remitió a través de diferentes personas intermediarias del Ayuntamiento, dejando aún más patente este trato discriminatorio. Y es que, consciente de que el alcalde estaba empeinado en nombrar el puesto de “Coordinador de Servicios Socioculturales” como “Técnico de Euskera”, este miembro del Comité, con el fin de dar una salida a la situación, propuso que se modificara la denominación de su puesto de trabajo a “Técnico de Euskera y Coordinador de Servicios Socioculturales”, asignándole en este mandato legislativo únicamente las funciones de Técnico de Euskera, tal y como quería el alcalde. De esta forma, ante una posible valoración de puestos de trabajo, se garantizaría la valoración del puesto obtenido mediante dos OPEs.

Es decir, una propuesta que garantizaba el objetivo deseado por el alcalde, sin perjudicar la carrera funcional de la persona trabajadora. Pues bien, también se ha negado. ¿Cuál es la verdadera razón para negar esa propuesta? Para intentar disimular que su decisión perjudica a una persona del Comité, ha convertido en personal técnico todos los puestos pertenecientes a coordinadores o coordinadoras (a excepción de una coordinadora). Sin embargo, la persona perteneciente al Comité es la única a quien se le suprimen las áreas de gestión que obtuvo mediante dos OPEs, pasando de gestionar 4 áreas a gestionar una única área. El resto de coordinadores y coordinadoras han mantenido todas sus áreas de gestión, o se les ha asignado alguna más.

Es evidente que el Comité lo conformamos diferentes sindicatos de distinta ideología. Y tenemos muy claro que en este caso da igual cuál es la sigla del sindicato a quien pertenece la persona que es miembro del Comité, y ha resultado perjudicado. Tenemos claro que los y las trabajadoras tenemos que apoyar a nuestros y nuestras representantes, porque si no, ¿Quién va a defender los derechos de los y las trabajadoras? Hoy le ha tocado a un sindicato, y mañana puede ser otro. Cada vez que el Comité ha denunciado públicamente la actuación del alcalde, éste siempre ha manifestado que nuestra intención ha sido perjudicarlo políticamente contra él, que la oposición nos utiliza, y que los y las miembros del Comité manipulamos a nuestro personal. Son acusaciones muy graves. Nosotros y nosotras no vamos a entrar en el juego de los partidos políticos, pero tampoco vamos a permitir que se manche nuestro nombre y nuestro hacer, ni que se pisoteen nuestros derechos laborales por el mero hecho de ejercer nuestra acción sindical legítima que nos corresponde como representantes sindicales.

En Amurrio, a 26 de enero de 2024

AMURRIOKO UDAL KOMITEA

